


...eta **Kitto!**

EIBARKO EMAITZAK
2011 - V - 22



UDALERA
ETA BATZAR
NAGUSIETARAKO
HAUTESKUNDEAK



Emaitzen berri izan ondoren, ongi-etorri beroa eman zioten Miguel de los Toyos sozialisten zerrenda-buruari Ifar-Kaleko egoitzan afaltzeko zain zeuden alderdikideek.



Hamabost egun besterik ez duen Bildu koalizio berriaren partaideek txanpainarekin ospatu zuten atzo herrian izandako emaitza, Toribio Etxebarriako lokal berrian.

Bildu, indartsu sartuta, bigarren alderdi bozkatuena izan da

De los Toyos Arriolaren bidetik

AZKEN URTEOTAN GAUZAK GEHIEN ALDATU DITUZTEN HAUTESKUNDEAK IZAN ZIREN ATZOKOAK. Urte bi dira Iñaki Arriolak alkatetza laga zuenetik eta, Miguel de los Toyosen lehenengo hauteskunde hauetan mila boto galdu arren, PSE-EE lehenengo indarra da oraindik. Hala ere, Bilduk lortutako boto kopuruak zeharo aldatu du herriko zinegotzien alderdikako banaketa, izan ere, Bilduren sei zinegotziek ordezkariak barik laga ditu Aralar, Ezker Batua eta H1!

Eibarko hirugarren indarrak, EAJ-k, orain dela lau urtekoarekin alderatuz

ehun boto gutxiago jaso ditu, baina zinegotzi bat galdua lehenengo aldiz jaitzi da hirugarren alderdi bozkatuena izatera. Espainian PP-k igoera handia izan badu ere, Eibarren 60 boto inguru irabazi ditu bakarrik; ondorioz, baina, alderdi popularrak orain zortzi urteko emaitzetara bueltatu eta zinegotzi bi izango ditu udalbatzan. Aralar eta Ezker Batua legeak eskatzen duen %5era gutxigatik ez dira ailegatu eta horrek Udaletik kanpo laga ditu.

Parte-hartzeari dagokionez, %64koa izan da 2011n, orain lau urte baino puntu eta erdi handiagoa, baina orain dela urte bi baino beste puntu bi txi-

kiagoa. Osatuko den udalbatzan emakume gehiago izango dira gizonezkoak baino: 12-9 banatuko dira eserlekuak.

Batzar Nagusietarako hauteskunderi dagokionez, honakoak izan dira emaitzak: PSE-EE (4.395), Bildu (3.623), EAJ-PNV (3.071), PP (1.253), Aralar (628), EB-Berdeak (490) eta H1! (233). Diputazioarako, PSEk 600 boto gutxiago jaso ditu eta EAJ-k, aldiz, 500 gehiago.

BATZAR NAGUSIAK

Gipuzkoa

Bildu (22) EAJ-PNV (14)
PSE-EE (10) PP (4) Aralar (1)

Bizkaia

EAJ-PNV (22) Bildu (12)
PSE-EE (9) PP (8)

Araba

PP (16) EAJ-PNV (13)
Bildu (11) PSE-EE (9) EB (2)

Nafarroako Parlamentua

UPN (19) PSE-EE (9) NA-Bai (8)
Bildu (7) PP (4) Ezkerra (3)



2007ko zinegotziak

PSE-EE	11
EAJ-PNV	5
EB-Aralar	2
EA (gero H1!)	2
PP	1



9



6



4



2

APARTA, BERRIA, PRAKTIKOA eta GAURKOA



EMAN CONSULTING, S.L.

AHOLKULARITZA ETA CONSULTING

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa

GIZA ERREKURTSOAK

- Enpresako komenio eta hitzarmenak

PERTSONALAREN AUKERAKETA

STAFF OROKORRA

- KRISIALDIAN DAUDEN ENPRESAK BERRIRO MARTXAN JARRI

AUDITORIARIK

- KOMENIO ESTRAJUDIZIALAK

ORDAIN-ETENALDIAK

- ASEGURU PRIBATUAK

KALITATE ARAUAK



MAILAK TRUST, S.L.

TRANSAKZIO INMOBILIARIOAK
KOMUNITATEEN GESTIOA

- ETXE ETA LOKALEN SALEROSKETA

- ALOKAIRUAK

- TRASPASOAK

- BALORAZIOAK

- PERITAJEAK

- SUBENTZIOAK

- KREDITU OFIZIALAK

- BANKU KREDITUAK

J. Etxebarria, 5 (EIBAR) Tel. 943 200 336 / 943 208 778 Faxa: 943 200 342
Marqués de Valdespina, 10 (ERMUA) Tel. 943 170 451 Faxa: 943 176 901

J. Etxebarria 5 (Tel. 943 200 336 / 943 200 069 - Faxe: 943 200 342) EIBAR
Marqués de Valdespina 10 (Tel. 943 170 054 - Faxe: 943 176 901) ERMUA

emansl@infonegocio.com

BOTUA EMOTERAKUAN

1.- Zelan ikusi dozu KANPAINIA? 2.- Zelako EMAITZAK espero dittuzue?



ARCADIO BENITEZ (PSE-EE)

Mahaixak osatu eta segiduan, 09.30xetan juan zan botua emotera Arcadio Benitez udaletxera. Ordu horretan oindiok ez zan jenderik ikusten ez kalia ezta kolegiuetan be.



- 1.- Kanpaina politikua intensidade haundixarekin bizi izan dogu eta oso ondo landu. Bestela erregular, gorabehera haundirik barik, lasai juan da.
- 2.- Herritarrak oiñ arte egindako gestiñuarekin ados eta pozik egon ezker, emaitza onak izango dittugu, panoramia kanbixau eta talde bat gehixago egotiak izango daben eragiñarekin.



SOCO BASKARAN (BILDU)

San Andres eskolan tokau izan jakon botua emotia Soco Baskarani. Interbentore moduan zeguan han eta 11.00etan sartu eban botua hautestontxixan. Giro lasaixa zan momentu hartan.



- 1.- Guretako kanpaina ezohizkua izan da. Azken momentuan legalizau ginttuen eta harrezkero lana besterik ez dogu egin. Gure albuon egon diraneri esker-erak emon bihar detseguz egin daben lanagaittik.
- 2.- Pentsatzen dot Udalian jendia izango dogula. Ilusiñua sortu dogu eta politika egitteko beste modu bat daguala erakutsi.



MIREN SOJO (EAJ-PNV)

Azken urtiotako martxari jarraituta, interbentore biharrian tarte bat eginda Urkizuko eskolatik urten eta San Andres eskolan emon eban botua Miren Sojok, 10.15ak aldera.



CARMEN LARRANAGA (PP)

Goizeko 10.00etarako sartu zan Carmen Larranaga botua emotera Coliseora. Ordurako euri lanbrua hasitta eguan eta lehen orduan baiño jende gehixago ikusten zan, batez be kolegiu inguruetan.



SERGIO SAN JOSE (ARALAR)

Aralar alderdiko alkategaixak udaletxian emon eban botua, 11.00etan. Ordu horretan Untzagan jende morduia zebillen atzera eta aurrera. Botua emoten be mugimendu haundixa eguan.

- 1.- Martxa onian juan da eta gure alderdixan alkatetza lortzeko ahalegiñetan bihar haundixa egin dogu. Pozik nago oinguan alderdi politiko guztiak parte hartzeko aukeria izan dabelako.
- 2.- Kanpaina politikuan egindako biharrik jendiarangan eragiña eukiz gero, oinguan gure alderdixak aurrekue-tan baiño botu gehixago jasotzia espero dogu.

- 1.- Kanpaina trankilla izan da giruari begiratuta. Bestela, egindako biharri begiraten ipiñiz gero, kanpaina-rekin lotutako guztiak egitteko bihar haundixa egin dot.
- 2.- Emaitzak aurrekusteko edo horren gaiñeko prebisiñoren bat egiñ ahal izateko, ez naiz inkestekin larregi fidatzen. Nahixago izaten dot botuak kontauta emaitzak jakiñ arte itxaitzia; horrek balixo desta neri.

- 1.- Kanpaina batez be Bilduren partehartziaren inguruan zentrau da eta, gauzak holan, guretako ez da erreza izan. Halanda be, gure programa gizarteratzia eta jendiarengana aillegatzia lortu dogula pentsatzen dogu.
- 2.- Aurreko hauteskudietan koaliziñuan juanda lortu genduan ziñegotzixari eusteko esperantza daukagu, oinguan bakarrik aurkeztuta be.



ELI GOMEZ LACONCHA (EB-BERDEAK)

Eguardixan, 12.00xetan puntuan sartu zan EPARA botua emotera Eli Gomez, alderdikide bik lagunduta. Ordurako geletako ate inguruetan jende morduia pillatzen zoian, batez be edadekuak.



EzkerBatua
Berdeak

- 1.- Eibarko asanbleako kidiak optimismo haundixarekin bizi izan dogu kanpaina. Gure kandidaturarekin oso pozik gagoz, ona begittantzen jaku eta hautagaixen zerrendan independente asko alkatzia lortu dogu.
- 2.- Emaitzeri begira, aurrekuan koaliziñuan juanda ziñegotzi bat lortu genduan eta oinguan be horri eusteko moduan izatia espero dogu eta, akaso, zeozer igotzia.



JOSE ANTONIO MUTILOA (H1!)

Eguraldi illuna izan arren, normala baiño jende gehixago zebillela aittatu eban mahai elektoralekokuak. Jose Antonio Mutiloak San Andres eskolan emon eban botua goizeko 10.00etan.



hamaikabat

- 1.- Hedabidiak kanpaina baldintzatu eta gure alderdixa gitxietsi egin dabe. Orokorrian ez dot proposamen argirik ikusi alderdixen artian, blokien arteko burruka izan da.
- 2.- Baikorrek gara, ondo irudika-tuak izan ez garan neurrixan. Espero dogu oiñ arteko EAren botu tradizionala gure alderdixan eustia.



San Andres, 1 ac
EIBAR
943 20 34 45

GIDA-BAIMENAK Teknologia berriekin



ORDUTEGIA
09.30-13.00
15.30-20.30

5 EGUNEKO Teorikako IKASTARO TRINKOAK



HAUTESKUNDE EGOITZETAKO BOTUAK AUZORIK-AUZO

	PSE-EE	Bildu	EAJ-PNV	PP	Aralar	EB-Berdeak	H1!	Zuriak
Amaña	664 (%54)	177 (%14)	134 (%11)	140 (%11)	15 (%1)	58 (%5)	11 (%1)	25 (%2)
Ipurua	644 (%35)	500 (%27)	315 (%17)	113 (%6)	87 (%5)	94 (%5)	28 (%2)	36 (%2)
Coliseoa	428 (%28)	412 (%27)	339 (%22)	120 (%8)	93 (%6)	61 (%4)	47 (%3)	35 (%2)
Gerontologikoa	238 (%44)	134 (%25)	64 (%12)	53 (%10)	17 (%3)	23 (%4)	2 (%0)	2 (%0)
San Andres	630 (%27)	680 (%29)	498 (%21)	181 (%8)	135 (%6)	83 (%4)	67 (%3)	37 (%2)
Udaletxea	831 (%30)	774 (%28)	627 (%23)	173 (%6)	121 (%4)	85 (%3)	66 (%2)	35 (%1)
Urki	731 (%47)	355 (%23)	193 (%12)	119 (%8)	33 (%2)	76 (%5)	20 (%1)	17 (%1)
Urkizu	825 (%33)	641 (%25)	487 (%19)	213 (%8)	136 (%5)	93 (%4)	59 (%2)	65 (%3)
Guztira	4.991 (%35)	3.673 (%25)	2.657 (%19)	1.112 (%8)	637 (%4)	573 (%4)	300 (%2)	252 (%2)

ZENTSOA: 22.337

BOTO-EMAILEAK: 14.295

PARTE-HARTZEA: %64

ABSTENTZIOA: %36

ARGITARATZAILEA:
"...eta kittol!" Euskara Elkartea.
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar.
Telefonoak: 943-206776 / 943-200918.
www.etakitto.com

BABESLEA:
Eibarko Udala.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

LAN TALDEA:
Maider Aranberri, Juan Andres Argoitia,
Naiara Azpeitia, Ekhi Belar,
Silbia Hernandez, Aina Labado,
Ainhoa Luz, Koldo Mitxelena,
Ainara Riveras.

KOLABORATZAILEA:
Eneko Astigarraga.

ARGAZKIAK:
Maialen Belaustegi, Ander Salegi.

DISEINUA / MAKETAZIOA:
Jose Luis Gorostegi.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu, Belen Ulazia.

TIRADA:
6.000 ale.

BANAKETA:
Ekhi Belar, Anartz Mitxelena.

INPRIMATEGIA:
Gertu koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A:
"...eta kittol!"

LEGE-GORDAILUA:
55/430/92.

ISSN:
1132-1679.

"...eta kittol!"-k ez du bere gain hartzen ale honetan adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



ENEKO ASTIGARRAGA
(soziologoa)

Kolaborazioa

Bilduren olatua eta PSE garaile

HAUTESKUNDE BEREZIAK 2011 URTEKOAK, aspaldiko partez hautesleei aukera guztiak bozkatzeko bidea eman zaielako eta aspaldiko partez ETaren indarkeriarik gabekoak izan direlako. Horretaz gain, izan dira beste pare bat gertaera aipagarri: ez dela izan eztabaida larregi programa edo proiektuen inguruan eta komunikabideetan indar asko hartu duten zenbait hiritako plazetako *akanpadek* apenas izan dutela isladarik Eibarren, zapatu gauean Untzagan ikusi genituen lagun gutxi batzuk kenduta.

Zortzi aukera genituen lehian Eibarren Udal ordezkariak lortzeko (PP, PSE, EAJ, Aralar, Bildu, Hamaikabat eta Ezker Batua - Berdeak), baina azkenean bakarrik lauk lortu dituzte ordezkariak. Izan ere, aurreko udalbatzan ordezkariak zituzten Aralar, Hamaikabat eta Ezker Batua - Berdeak eserlekurik gabe geratu dira oraingoan, hauteskunde legeak eskatzen duen %5era ailega-

tu ez direlako. Trukean indar handiz sartu da Bildu udaletxean, bigarren indar bezala.

Emaitzei begira, giro edo testuinguru kaltegarrian PSEk indar nagusia izateari eutsi dio. Baina sozialisten garaipena azken urteetako "klasikoa" denez, Bilduren sarrera indartsua da gaurko hauteskudeetako daturik esanguratsuenak. Bigarren indarra da, sei zinegotzi lortu ditu, eta urte asko atzera egin beharko genuke Bilduren inguruan batu diren indarrek lortu dituzten emaitzak aurkitzeko.

Aralar eta Ezker Batuaren arteko hauteskunde-ituna haustea kaltegarria izan da bientzat: ia ez dute botorik galdu -1300 boto orain dela lau urte eta 1200 aurten-, baina zituzten ordezkari biak galdu dituzte. PPK, aldiz, etekin handia atera dio orain dela lau urte lortutako boto kopuruari eusteari eta zinegotzi bi lortu ditu. EAJ-ak, 200 boto inguru galtzarekin ba-

tera -2.790 orain dela lau urte eta 2.624 aurten- zinegotzi bat gutxiago eskuratu du eta hirugarren lekura pasatu da.

Hurrengo udal gobernua osatzean ez da gehiengo garbirik egongo, baina De los Toyosen alderdiak lortutako 9 zinegotziek, eta beste alderdien arteko botu banaketak, beste lau urte Udal Gobernuaren buruan jarraitzeko aukera garbia ematen diote, lehen aldiz zerrenda buru bezala aurkeztu den hauteskundeetan. 1995ean Arriolak 7 zinegotzirekin lortu zuen, gero luzaroan izan zuen alkatetzatza.

Eibarren egon diren emaitzetik haratago joanez gero, badirudi Gasteiz eta Madrilgo Legebiltzarrek ez dutela gaurko egunean botoemaileek adierazitako aukerak ordezkatzeko, zilegi dirudi hauteskunde aurrerapenak eskatzea: Gasteizen Lopezek eta Madrilgo Zapaterok ez dituzte une gozoak izango.



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

bista eder
clinica dental - hortz klinika

Inplante eta Hortz-Estetikan adituak

Bista Eder Hortz Klinika

Bista Eder, 19 - behea

943 70 00 82 / 943 20 84 75

"Ezin ditzakegu gauzak aldatu
beti berdina egiten badugu"

www. EstilGrafico.com

1990etik neurrira egindako komunikazio grafikoa

SORMENA
LAN TALDEA
WEB GUNEAK
ENPRESAKO BIDEOAK
KATALOGOAK
IRAGARKIAK
IRUDI KORPORATIBOAK
ERROTULAZIOA
ARGAZKIAK
PACKAGING-A

PSE-EE (MIGUEL DE LOS TOYOS)

"Emaitzarekin benetan pozik gaude, hauteskunde hauei begira erantzun bariko hiru galdera genituelako: batetik, Madriletik egindako politikaren eragina zela-koa izango zen, bestetik Bilduren partehartzearena eta, hirugarrenik, Arriola joanda ni alkategai modura lehenengoz aurkeztu naizela ere kontuan hartu behar da. Gipuzkoa mailan emaitza onenetakoak lortu ditugu, 99ko emaitzetara bueltatuta"

BILDU (IGOR ALDALUR)

"Oso gustora gaude lortutako emaitzarekin. Jendeak ulertu du Udalaren kudeaketa ez dela batere ona izan eta zigortu egin dute azken lau urteetan Gobernuan egon direnen kudeaketa. Herritarrek ulertu dute Bilduren aukera sendoa eta erreala dela, ezkerreko alternatiba erreala dela. Oposizioan gogoz lan egingo dugu gure programan aldarrikatzen genituen proposamenen alde"

EAJ-PNV (IÑAKI ZULOAGA)

"Talde guztiak zoriondu behar ditugu, baina bereziki PSE eta Bildu. Gure emaitzak oraingo honetan nahiko txarrak izan dira, eta ez gaude txalotzeko moduan. Baina beno, herriaren borondatea izan da eta onartu egin behar dugu. Garrantzitsua da PSEk iniziatiba hartuko duela hurrengo lau urteetan bere proiektuak aurrera ateratzeko, PPrekin edo bakarrik. Eibarrek horrela erabaki du"

PP (CARMEN LARRAÑAGA)

"Oso pozik eta oso emozionatuta nago. Egia esan behar badut, ez nuen inondik inora horrelako emaitza onik espero. Inkestek hori zioten, zinegotzi batetik bira igoko ginela, baina nik ez dut inkestetan laregi sinesten. Beraz, ezustean harrapatu nau. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiet gudan sinestu eta gure aldeko botoa eman duten eibartar guztiei. Ia orain denon artean herriaren alde lan egiteko gauza garen"

ARALAR (SERGIO SAN JOSE)

"Bilduren efektua oso kaltegarria izan da guretzako. Nahiz eta lau urte hauetan Mariasun Gartzia lan ona egin duen Udalean, herritarrek ez dute hori ikusi. Zinegotzia lortzetik oso gutxira gelditu gara, 50 bat botoren faltan, baina pozik gaude egindako lanarekin. Euskal Herriko datuak ere ez dira onak, baina behintzat argi dago independentista eta ezker abertzaleen mugimendu indartsua dugula"

EB-BERDEAK (JUAN S. VALLEJO)

"Hasteko, ez da istilurik egon eta oso positiboa da hori. Espero zen Bilduren urakana ere aipatu nahi dut eta hauek zoriondu. Orain zer egiten duten ikusi beharko da. Hirugarrenik, EAEn, PSE-EEren eta batez ere gure muturrekoak aipatu nahi ditut. Honek gauzak gaizki egin ditugula esan nahi du eta gure espazio politikoa berrikusi beharko dugu. Eibarren emaitzak ez dira hain txarrak izan, baina, EAEn bai. Mila esker bozkatu gaituztenei"

H1! (MERTXE GARATE)

"Garbi dago alderdi sozialistak irabazi egin duela, jaitsi egin den arren. Bilduren igoera da adieraztekoa. Ez genuen espero hainbeste zinegotzi lortuko zituztela. Guk bat ateratzea espero genuen, Aralarrek bat, PSE-EEK 8-9, EAJk 5, PPK 1-2 eta Bilduk 4. Abertzale moduan, jendeak Bilduren alde egin duela ikusten da eta EAJk jende finkoa daukala. Lan egin dugun arren, oraingoan jendeak ez ditu alderdi txikiak kontuan eduki"

HURRENGO LEGEALDIRAKO ZINEGOTZIAK



Miguel de los Toyos (PSE-EE)



Maria Jose Telleria (PSE-EE)



Arcadio Benitez (PSE-EE)



Esther Karcaga (PSE-EE)



Eneko Andueza (PSE-EE)



Miren Gallastegi (PSE-EE)



Jose Luis Vallés (PSE-EE)



Ana Rodriguez (PSE-EE)



Pedro Escribano (PSE-EE)



Igor Aldalur (BILDU)



Josu Cristóbal (BILDU)



Soco Baskaran (BILDU)



Leire Abanzabalegi (BILDU)



Nerea Castro (BILDU)



Begoña Vesga (BILDU)



Eva Juez (EAJ-PNV)



Iñaki Zuloaga (EAJ-PNV)



M. Luz Balenziaga (EAJ-PNV)



Javier Zorrakin (EAJ-PNV)



Carmen Larrañaga (PP)



Sofia Vázquez (PP)



Tfnoa: 943 741800 / Faxes: 943 741760
P. M. Urruzuno, 31 - behe (ELGOIBAR)

Tfnoa. (4 linea): 943 20 16 80
Faxes: 943 20 18 41
E-maila: denolan@denolan.es
Muzategi, 1 (EIBAR)



Muzategi, 1 (EIBAR)
Tfnoa: 943 20 16 80 Faxes: 943 20 18 41

Larragest



INMOBILIARIA AGENTZIA

Bidebarrieta, 12
Tf. 690 610 715